

Iñaki Barcena

Ekologistak Martxan eta Parte Hartuz Ikerketa Taldeko kidea ♦



INIGO AZKONA

## Zarama: arazoa edo aukera?

PATATA BEROA. Halaxe da benetan Gipuzkoako udal instituzioek –eta herritarrek– dutena etxeko zaramen kudeaketarekin. Badirudi, gaurko koiunturan, zaborraren inguruko antagonismoa punturik gorenera heldu dela. Hasieran, Zergarbi errauskailuaren proiektua atzera bota zenean, duela 20 urte, Roman Suduperen garaian, esan genezake aitzakia ekonomikoa izan zela. Harrezkero, luzea izan da etxeko hondakinen gaineko eztabaida. Egun, ez dago aste bat zaramaren inguruko berri berorik gabe. Lehia handia dago, joan diren urteetan izandako errauskailuaren aurkako mobilizazioen ostean, “kontramugimenduak” ari baitira sortzen Atez ate ereduaren kontra. Legazpi lekuko.

ARAZOA. Pentsa daiteke gipuzkoarren arazo berezia dela eta partiduei dagokiela irtenbide politikoa aurkitzea. Baina ez dut uste Bizkaian edo Nafarroan arazoa txikiagoa denik, nahiz eta momentuan iskanbila handirik ikusi ez. Zaramarena arazo globala da, sostengarritasunari loturikoa, ditugun baliabide energetiko eta materialak mugatuak direlako eta ekosistemek ezin dutelako sortzen ditugun hondakinen kopurua jasan, batez ere.

Batzuentzat aldiz, arazoa ez da sozio-ekologikoa. Estetikaz, usainaz, askatasun pertsonalaz edo inti-

mitateaz ari dira. Eurek ere ekologiaren aldekoak dira, noski, baina inposiziorik gabe. Asuntua da, herri, auzo eta hiri guztietan zaramaren kudeaketa arazo sozio-ekologikoa dela, batzuetan gatazka bihurtzeraino. Eta gatazkek batzuentzat gizartearen gaixotasun sintomak badira (Parsons, Merton...)

beste askorentzat (Simmel, Dahendorf, Hirschmann...) bizitza sozialari loturikoak dira, ez beti negatiboak.

EDO AUKERA? Nepalen eta Napolin, Rio de Janeiron eta Zarautzen zaramaren kudeaketa erdigune politikoan dago. Brasilgo *faveletan* ere empresa multinazionalak muturra sartu nahi dute zarama biltzaileen kooperatiben kalterako. “*O problema do lixo é o lucro*” (Zaramaren arazoa etekina da) esaten dute han eta bat nator horixe bera dela bertan daukagun auzia. Gipuzkoan ematen ari

den eztabaida sozial zabala nahiko nuke nik Bizkaian ere eta Euskal Herria osoan. Azken 30 urteetan, zarama negozio aukera ezin hobea izan da EAeko ingurumen karguetan egon direnentzat, eta ez Xabier Garmendiarentzat soilik. Zarama politikak bere garrantzia hartzen badu, eta ari da hartzen, gero eta zailago ikusten dut eliteen negozioentzako aukera. ■

*Azken 30 urteetan, zarama negozio aukera ezin hobea izan da EAeko ingurumen karguetan egon direnentzat, eta ez Xabier Garmendiarentzat soilik*



DANI BLANCO



**Itxaro Borda**



IDAZLEA

## (Auto)kontrola

IRAGAN egun batez adiskidetzat dauzkadan bi lagun naski harritu nituen ez nuelako, menderik mende gure artean egiten den bezala, nire iritzia aski kontrolatu. Aurreko astean frantses poliziak sei ETA kide atxilotzea deitoratzen zuten. Ihardespenean arras axolagabea izan nintzela aitortu dut: enegatik denak kartzelan sartzen ahal dituzte, ez baitu behatz tititlarik ere higituko.

Begiak zulo geratu zitzaizkidan so, etsaia bainintzen, nerauk ere ez nekiela non gorde, ene atrebentzia debaldeaz ahalke.

Alta bestela heziak gara, Iparraldeko laborari haur hauek bederen. Hurkoaren

pentsamoldea beti lehen dago, eztabaidaezina da eta badakigu anitz gutxiagotzat harremanak galtzen ahal direla.

Badu bizpahiru goiz jada damuak larrutzen nauela: zergatik ez nintzen isilik egon! Hargatik nire errua onartzen dut, *ariestarren* antzera inpultsiboa naizela erantsiz. Hobe nuke alabaina *Goenkale* ren hondar emanaldiaz edo Freddy Mercury eta Montserrat Caballék elkarrekin eskaintzen zuten *Barcelona* zoragarriaz hitz egitea.

Baina aukerarik ez dut. ■

